

2020ko Greba Orokorrean atxilotutako 4 grebalariai hurrengo asteetan epaituko dituzte

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 16/12/2023

Hauetako hiru 2 urteko espetxe-zigorren eskaerari aurre egin beharko diote eta laugarrena berriz, 6 hilabeteko espetxe zigorra eta 600 euroko isunari.

2020ko urtarrilaren 30eko Greba Orokorrean egon ziren polizia-kargaren ondorioz 4 pertsona inputatu dituzte. Egun hartan, Donibanen(Iruñea) zegoen pikete bat geldiarazi zuten Espainiako Poliziaren patruila batzuek, eta kideak identifikatu eta kolpatu zituzten. Horren ondorioz, hainbat pertsona zauritu zituzten, eta horietako bat berehala atxilotu zuten. Egun batzuk geroago, kontzentrazio batek poliziaren basakeria salatu zuen. Hala ere, grebalariei aurkako jazarpena ez zen hor geratu, eta handik egun batzuetara Espainiako Poliziak beste 3 pertsona atxilotu zituen.

Orain jakitera heman duenez “Grebalariekin bat” plataformak prentsaurreko baten bidez, datorren abenduaren 19an, 6 hilabeteko espetxe zigorra eta 600 euroko isunari aurre egin beharko dioten pertsona bat epaituko dute, eta gainerakoak martxoaren 26an, 2 urteko kartzela-zigorren eskaerari aurre egin beharko diotena. Era berean, plataforma honek grebalariekin elkartasunean mobilizazioak antolatuko duela iragarri du eta hauetan parte hartzeko deia luzatu dute.

(Irudia:Ahotsa)

<https://eh.lahaine.org/2020ko-greba-orokorrean-atxilotutako-4>